

Ordizian, 2015eko uztailaren 16an UDALBATZARRAK aparteko bilkura egin du udaletxe honetako bilkura aretoan. Hona hemen bertaratuak:

BERTARATUTAKOAK:

LEHENDAKARIA:

José Miguel Santamaría Ezeiza jn.

BERTAN DAUDEN ZINEGOTZIAK:

Angelica Moreno Heras	EAJ/PNV
Arantxa Fernandez Alvaredo	EAJ/PNV
Bittor Bolinaga Alzelai	EAJ/PNV
Jose Ignacio Iturrioz Gotor	EAJ/PNV
Igor Eguren Izagirre	Ordiziako EH Bildu
Belen Maiza Urrestarazu	Ordiziako EH Bildu
Adur Ezenarro Agirre	Ordiziako EH Bildu
Izaro Intsausti Zinkunegi andrea.	Ordiziako EH Bildu
Jon Ander Caballero Zubelzu	Ordiziako EH Bildu
Miren Alazne Sukia Galparsoro	Ordizia Orain
Antxon Sanz Lecuona	Ordizia Orain
Iñaki Dubreuil Churruca jauna	Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak

IZAN EZ DIREN ZINEGOTZIAK: Guztiak izan dira.

IDAZKARIA: Iker Rocandio Etxeberria jn.

KONTUHARTZAILEA:

Jose Luis Aranburu Otegi jaunak abisatu du ezin duela etorri.

AZTERTUTAKO GAIK

EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO GAIK:

- 1.- Osoko bilkuren maiztasuna.
- 2.- Informazio Batzordeak eratzea.
- 3.- Udalbatzaren menpeko Kide Anitzeko Udal Organoetako ordezkariak izendatzea.

- 4- Tokiko Gobernu Batzordeko kideen, ordezkari eta alkateordeen izendapenari buruzko Alkatearen ebazpenak jakinaraztea.
- 5.- Osatutako Talde Politikoen eta horien bozeramaleen berri ematea.
- 6.- Alkateak dedikazio eskusiboa izateko proposamena.
- 7.- Udal honetako zinegotzi baten %100 dedikazio eskusiboa eta beste baten %50 dedikazio partziala dedikazioa.
- 8.-Udal taldeen eta zinegotzien diru-kopuruak.

GORABEHERAK

ORDUTEGIA:

HASIERA: 19:03 etan

AMAIERA: 20:15etan



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren lehenengo puntuaren berri eman du:

1.- Osoko bilkuren maiztasuna.

Proposamena

- Hileko azken ostegunean egingo dira ohiko osoko bilkurak, 19:00 etan.
- Uztaila eta abenduko bilkurak, astebete aurreratu ahal izango dira.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Sukia an.

Udalbatzak grabatu eta herritarrek internet bitartez eskuratu ahal izatea nahi dugu (zuzenean edo diferidoan). Eta aktak argitaratu.

Eguren jn

Guk ere eskatu dugu bilerak grabatu eta eskuragarri jartzea.

Alkate jn

Datorren asteko Tokiko Gobernu Batzarrean aztertuko dugu gai hau.

Bozketa

Eztabaida mahaiari amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du aipatutako aldaketak egin ondoren.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 13 (EAJ/PNV 5, Ordiziako EH Bildu 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1).

Aurkakoak: 0.

Abstentzioak: 0.

Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

2.- Informazio Batzordeak eratzea.

Proposamena

Batzorde Informatzaile Iraunkorrek sortzea eta osatzea proposatu da.

1. GAI ARRUNTEN BATZORDE INFORMATIBOA

Jarduera eremuak. Kontrol eta berri ematea:

- Delegazioetako aktak.
- Dekretuak.
- Orokorrean aztertzeko gaiak.

Astero egingo da, asteazkenetan, 17.30etan, Plenorako Gaien Batzordea egiten den asteazkena izan ezik.

BATZORDEBURUA: Jose Miguel Santamaria Ezeiza, alkatea.

KIDEAK:

- .- Angelica Moreno Heras (EAJ/PNV).
- .- Arantxa Fernandez Alvaredo (EAJ/PNV).
- .- Belen Maiza Urrestarazu (Ordiziako EH Bildu).
- .- Iزارo Intsausti Zinkunegi (Ordiziako EH Bildu).
- .- Miren Alazne Sukia Galparsoro (Ordizia Orain).
- .- Iñaki Dubreuil Churruca (Socialistas Vascos – Euskal Sozialistak).
- .- Eguneko aztergaietan gaiak sartuko dituzten arloetako delegatuak.

2. PLENORAKO GAIEN BATZORDEA

Jarduera eremua: Osoko Bilkuran aztertuko diren gaiak.

Osoko Bilkura egin beharreko astea baino astebete lehenago egingo da, asteazkenetan, 17:30etan.

BATZORDEBURUA: Jose Miguel Santamaria Ezeiza, alkatea.

KIDEAK:

- .- Jose Ignacio Iturrioz Gotor (EAJ/PNV).

- Arantxa Fernandez Alvaredo (EAJ/PNV).
- Igor Eguren Izagirre (Ordiziako EH Bildu).
- Adur Ezenarro Agirre (Ordiziako EH Bildu).
- Antxon Sanz Lecuona (Ordizia Orain).
- Iñaki Dubreuil Churruca (Socialistas Vascos – Euskal Sozialistak).
- Eguneko aztergaietan gaiak sartuko dituzten arloetako delegatuak.

3. - KONTUEN BATZORDE BEREZIA

Jarduera eremuak. Osoko bilkurak onartu beharreko aurrekontuetako eta aurrekontuetatik kanpoko kontuen azterketa eta berri ematea.

BATZORDEBURUA: Jose Miguel Santamaria Ezeiza, alkatea.

KIDEAK:

- Jose Ignacio Iturrioz Gotor (EAJ/PNV).
- Arantxa Fernandez Alvaredo (EAJ/PNV).
- Igor Eguren Izagirre (Ordiziako EH Bildu).
- Iزارo Intsausti Zinkunegi (Ordiziako EH Bildu).
- Miren Alazne Sukia Galparsoro (Ordizia Orain).
- Iñaki Dubreuil Churruca (Socialistas Vascos – Euskal Sozialistak).

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Alkate jn

Kontuen Batzorde berezia indartu nahi dugu, gai gehiago eramanez bertara eta sarriago deituz.

Eguren jn

Alde bozkatuko dugu baina hitzaurre bat egin nahi dut. Eskaini zaigu gobernuan sartzea eta ezetz erantzun dugu, antolaketari buruzko eta programari buruzko arrazoiak direla eta. Alkateak aurkeztutako proposamena alderdi sozialistarena da. Piramidala. Herritarren parte hartzea bultzatu behar da, hasieratik. Tokiko Gobernu Batzarrean egoteko prest gaude, baina nahiago izango genuke erabakitzeke ahalmena balu. Ez zaigu herritarren parte-hartzea sustatzeko proposamenari erantzun. EAJK beste alderdiekiko harremana lehenetsi du. Baina ez gaude oztopatzeke. Aldeko bozka baldintzatua egongo da etorkizunean, honen garapena dela eta.

Sukia and

Batzar ireki batzuk proposatu ditugu. Herritarrei irekiak eta erabakitzailerak. Baita delegazio kolektiboak. Ezetz erantzun zaigu. Egitura hau piramidala da eta zurruna. Kontra bozkatuko dugu.

Dubreuil jn

Egitura hau irekia da herritarren partaidetzarako. Sektoreetako Aholku Batzordeek parte hartze hori bermatzen dute eta Herritarren Batzorde bat eratzen da. Oposizioak gobernuaren kontrola izatea bermatzen da Gai Arrunten Batzordearen bitartez. Beste Batzorde bat eratu da Udalaz gaindiko erakundeentzako eta Kontuen Batzordearen eskumenak zabaldu dira. Batzordeetako partaideen artean informazio-jarioa bermatu behar da (aktak berehala eginez). Kontrolaren bermea dago ez dagoelako gehiengorik gobernuan.

Sukia and

Idatzita dagoen proposamenak ez du lñakik esandakoarekin bat egiten, etorkizuneko helburu izan daitekeena. Hemen hiru batzorderen eraketa onartzen dugu soilik. Eta aholku-emaile soila den Gobernu Batzorde baten eraketa.

Dubreuil jn

Oinarrizko organigrama legeak ezartzen du: osoko bilkura, alkatea eta Gobernu Batzordea. Osoko Bilkura da organo garrantzitsuena.

Eguren jn

Argi gelditu da proposamen hau PSO Erena dela. Hitz egin dezagun dagoen proposamen honetaz, ez etorkizunaz. Guk proposatu genuen, beste herri batzuetan bezala, Udalaren batzordeak irekiak izatea. (guztion ordezkariarekin) eta ezetz esan zaigu.

Alkate jn

EH Bildu eta Ordizia Orainekoek esan ziguten delegaziorik ez zutela nahi. O.O.ren proposamena ez zen legezkoa. Gobernu Irekia ez da kontzeptu bat: erregelamendu bat baizik (udalbatzarrak onartuko duena, uda ostean). Parte-hartzea eta gardentasuna bermatzeko. Duela bi legealdi aitzindari izan ginen herritarren partaidetza bermatzeko orduan. Barkamena eskatu nahi dut dokumentazioa igortzean egon diren arazo teknikoak direla eta.

Eguren jn

Ekainean bidali zitzaigun proposamena ez da hona ekarri dena. Guk haren gainean lan egin genuen. Berri hau ez dugu izan astelehenera arte. Beste alderdiek, ordea, bazuten. Oraindik ez dugu gobernu programarik eta jakin berri dugu PSE ez dagoela gobernuan. Programa nahiko genuke.

Bozketa

Eztabaida mahaian amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 11 (EAJ/PNV 5, Ordiziako EH Bildu 5, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)
Aurkakoak: 2 (Ordizia Orain)
Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

3.-Udalbatzaren menpeko kide anitzeko Udal organoetako ordezkariak izendatzea.

Proposamena

Udal honek parte hartzen duen organo eta erakundeetan korporazioko kideen izendapena.

BARRUKO ORGANO ERABAKITZAILEAK

ENBA Batzordea

- .- Jose Miguel Santamaria Ezeiza, alkatea.
- .- Jose Ignacio Iturrioz Gotor (EAJ/PNV).
- .- Belen Maiza Urrestarazu (Ordiziako EH Bildu).
- .- Miren Alazne Sukia Galparsoro (Ordizia Orain).
- .- Iñaki Dubreuil Churruca (Socialistas Vascos – Euskal Sozialistak).

ERAKUNDE AUTONOMOAK

- HERRI ANTZOKIA

- Jose Miguel Santamaria Ezeiza, alkatea.
- Arantxa Fernández Alvaredo (EAJ/PNV).
- Belen Maiza Urrestarazu (Ordiziako EH Bildu).
- Antxon Sanz Lecuona (Ordizia Orain).
- Iñaki Dubreuil Churruca (Socialistas Vascos – Euskal Sozialistak).

- SAN JOSE EGOITZA

- Jose Miguel Santamaria Ezeiza, alkatea.
- Bittor Iñaki Bolinaga Alzelai (EAJ/PNV).
- Belen Maiza Urrestarazu (Ordiziako EH Bildu).
- Antxon Sanz Lecuona (Ordizia Orain).
- Iñaki Dubreuil Churruca (Socialistas Vascos – Euskal Sozialistak).

UDALAREN MENPEKO ELKARTEAK

- ORDIZIA LANTZEN
 - Presidentea: Jose Miguel Santamaria Ezeiza, alkatea.
 - Angelica Moreno Heras (EAJ/PNV).
 - Jose Ignacio Iturrioz Gotor (EAJ/PNV).
 - Igor Eguren Izagirre (Ordiziako EH Bildu).
 - Adur Ezenarro Agirre (Ordiziako EH Bildu).
 - Miren Alazne Sukia Galparsoro (Ordizia Orain).
 - Iñaki Dubreuil Churruca (Socialistas Vascos – Euskal Sozialistak).

- MAJORI KIROLDEGIA
 - Presidentea: Jose Miguel Santamaria Ezeiza, alkatea.
 - Bittor Iñaki Bolinaga Alzelai (EAJ/PNV).
 - Arantxa Fernández Alvaredo (EAJ/PNV).
 - Adur Ezenarro Agirre (Ordiziako EH Bildu).
 - Jon Ander Caballero Zubelzu (Ordiziako EH Bildu).
 - Antxon Sanz Lecuona (Ordizia Orain).
 - Iñaki Dubreuil Churruca (Socialistas Vascos – Euskal Sozialistak).

UDALAZ GAINDIKO ERAKUNDEAK

Hurrengo osoko bilkuran hartuko da erabakia.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira: ez dira izan.

Bozketa

Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du aipatutako aldaketak egin ondoren.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 13 (EAJ 5, EH Bildu Ordizia 5, Ordizia Orain 2, Euskal Sozialistak 1).

Aurkakoak: 0.

Abstentzioak: 0.

Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

4- Tokiko Gobernu Batzarreko kideen, delegazioko ordezkarien eta alkateordeen izendapenari buruzko Alkatearen ebazpenak jakinaraztea.

0693. DEKRETUA

HONAKO HAU IKUSIRIK:

Administrazioaren jardunean ahalik eta bizkortasun eta efikazia handienaz jokatzeko, Alkate honek beharrezko ikusi du eskuduntzen delegazio erregimen bat ezartzea jarraian aipatzen diren Udaltzako kideen mesedetan.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.3 eta 23.4 artikuluek, Udalaren Araudi Organikoaren 12. artikulua eta Toki Erakundearen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoaren Arautegia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/86 Errege-dekretuko 43.3. eta 43.5 b) atalek ematen dizkidaten aginpideak.

HONAKO HAU ERABAKI PUT:

Lehena: Bigarren puntuan zehaztutako zinegotziengan eskuordetzea, dagokion saileko teknikariarekin batera eta ebazpena emateko eskumena duen organora bidali aurretik honako hau: Udalaren posizionamendua eskatzen duten gai guztiak aztertzeko eta kontrastatzeko, administrazio-egintzen bat ebazteko edo udal jarduketara bat burutzeko eskumena,

Azterketa eta kontraste bilera hauetan adostutakoaren akta laburra idatziko da.

Bigarrena: Saitetako zinegotzi delegatuak ondorengo hauek dira:

- Garapen Iraunkorra eta Hiri Garapena: Angelica Moreno Heras andrea.
- Zerbitzuak, Herriguneko eta Azoetako Mantzente Lanak: Arantxa Fernandez Alvaredo andrea.
- Gobernantza: Jose Miguel Santamaria Ezeiza jauna
- Enplegua, Ekonomia eta Garapen Ekonomikoa: Jose Ignacio Iturrioz Gotor jauna
- Kultura: Arantxa Fernandez Alvaredo andrea.
- Euskara eta Hezkuntza: Jose Ignacio Iturrioz Gotor jauna
- Gizarte Zerbitzuak, Aniztasuna, Kooperazioa eta Osasuna: Iñaki Dubreuil Churruca jauna
- Berdintasuna: Iñaki Dubreuil Churruca jauna
- Kirolak eta Gazteria: Bittor Bolinaga Alcelay jauna

Hirugarrena: Dekretu hau jakinaraztea aipaturiko zinegotzietan, Udalaren sail ezberdinetako eta Udalaren menpeko erakundearen arduradunei; udaltzarrari egingo duen lehendabiziko osoko bilkuran berri ematea eta laburpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udalaren web orrian argitaratzea.

Laugarrena: Dekretu hau Alkatetzaren dekretu-liburuan kopia beharko da hitzez hitz, eta behean ageri den dataren hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Jose Miguel Santamaria Ezeiza aikate jaunak agindu eta sinatzen du, Ordizian, bi mila eta hamabosteko uztailaren hamalauan eta hori guztia nik, Idazkariak, ziurtatzen dut

0694. DEKRETUA (0697. Dekretuak akats zuzenketa egin ostean)

HONAKO HAU 1KUSIRIK:

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen (TAOL) 20.1.b) artikularen arabera, gure udalerrian derrigorrezkoa da Tokiko Gobernu Batzorde bat eratzea, 5.000 biztanietik gora izateagatik.

TAOLren 23.1. atalak, Udalaren Araudi Organikoaren 13tik 15. artikulura artekoek eta Toki-Erakundeen Antolakuntza, Jarduera eta Lege-jaurbidea arautzen duen azaroaren 28ko 2.568/1986 Errege-dekretuko 41.3 eta 52 atalek ematen dizkidaten aginpideak.

ONDORENGOA ERABAKI PUT:

Lehena: Tokiko Gobernu Batzarra eratzea, Berori Alkateak eta lau zinegotzik osatuko dute.

Bigarrena: Honako hauek Tokiko Gobernu Batzarreko kide izendatzea:

- Angelica Moreno Heras andrea, EAJ/PNV taldeko zinegotzia.
- Iñaki Dubreuil Churruca jauna, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak taldeko zinegotzia.
- Igor Eguren Izagirre jauna, Ordiziako EH Bildu taldeko zinegotzia.
- Miren Alazne Sukia Galparsoro andrea, Ordizia Orain taldeko zinegotzia.

Hirugarrena: Organo honek ez du erabakitze ahalmenik izango, eta Alkateari aholkua emateko organoa izango da, jarraian zehazten diren kasuetan.

Irizpideak gaika.

- Enplegu publikoaren eskaintza onartzea, osoko bilkurak onartutako aurrekontuaren eta plantillaren arabera.
- Langileak hautatzeko eta lanpostuak betetzeko lehiaketetarako probetako oinarriak onartzea.
- Funtzionarioak zerbitzuetatik kentzea eta lan-kontratuko langileak iraztea.
- Hautaketa-sistema zehaztea beharrezkoa den kasuetan, ordezkapenengatik edo bestelako kontzeptuengatik 6 hilabetetik gorako aldi baterako kontratatazioak.
- Osoko bilkurari berriaz egotzi gabeko plangintza orokorraren garapeneko plangintza-tresnak onartzea, eta horiekin bat hirigintza-kudeaketarako tresnak eta urbanizazio-proiektuak ere bai.
- Obra-proiektuak eta zerbitzu-proiektuak onartzea kopurua 60.000 eurotik gorakoa denean.
- Obrak eta zerbitzuak kontratazea kopurua 60.000 eurotik gorakoa denean.

2.- Bestelako irizpideak

Aztertu beharreko puntuetan sartzen diren dena delako gaiez gain, Batzordeak ondorengo puntuei buruzko aholkularitza emango du:

- Gai zehatz baten inguruan proposamen teknikoaren artean eta arduradun politikoaren ikuspegiaren artean desadostasuna badago.
- Teknikariak ebazpenerako bi proposamen edo gehiago dituenen eta gaiari buruzko irizpide argirik ez dagoenean.

Irizpide argirik ez dagoenean, dagokion saileko delegatuak Gobernu Batzordearen iritzia behar duenean

Laugarrena: Tokiko Gobernu Batzarraren ohiko bilkurak hil bakoitzeko lehenengo eta hirugarren asteko astelehen baliodunetan, arratsaldeko 17:30ean, egitea.

Adierazitako eguna jaieguna tokatuko balitz, bilkura hurrengo lanegunean egingo litzateke.

Bosgarrena: Abuztuan ez da ohiko bilerarik egingo, oporrak direla eta.

Aldez aurretik finkatutako eguna gabonetako edo aste santuko opor garaiaren barne dagoenean, aurreratu edo atzeratu egingo da bilera.

Seigarrena: Dekretu hau jakinaraztea aipaturiko zinegotziei, Udalaren sail ezberdinetako eta Udalaren menpeko erakundeen arduradunei; udalbatzarrari egingo duen lehendabiziko osoko bilkuran berri ematea eta laburpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udalaren web orrian argitaratzea.

Zazpigarrena: Dekretu hau Alkatezaren dekretu-liburuan kopia beharko da hitzez hitz, eta behean ageri den dataren hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Jose Miguel Santamaria Ezeiza alkate jaunak agindu eta sinatzen du, Ordizian, bi mila eta hamabosteko uztailaren hamalauan eta hori guztia nik, Idazkariak, ziurtatzen dut.

0695. DEKRETUA

HONAKO HAU IKUSIRIK:

Alkate honek, 694/2015 zenbakidun dekretuaren bidez, Tokiko Gobernu Batzarreko partaideak izendatu ditu.

Toki-Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 23.3 atalak, Udal Araudi Organikoaren 19. artikulua eta Toki-Erakundeen Antolakuntza, Jarduera eta Lege-jaurbidea arautzen duen azaroaren 28ko 2.568/1986 Errege-dekretuko 41,3 eta 46.1 atalek ematen dizkidaten aginpideak.

ONDORENGOA ERABAKI DUT:

Lehena: Udal honetako alkateordeak izendatzea, hots, Tokiko Gobernu Batzordeko kideetatik ondorengo zinegotziak:

- Angelica Moreno Heras and. (EAJ/PNV), lehenengo alkateordea.
- Inaki Dubreui Churruca jn. (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) bigarren alkateordea.

Bigarren: Alkatea absente, kanpoan edo gaixorik egongo baiitz, indarrean dagoen legeriak aitortzen dizkidan ahalmen eta eskumenak, bereziki bankuetako ordain-beharrak baimentzekoei buruzko agindu-emateak, alkateordeek egongo dituzte, beti ere ezarritako ordenaren arabera.

Hirugarrena: Afera hauen inguruan Alkateak herritik irten beharko balu, dekretu bidez adieraziko du absentziaren iraupena eta bere eskumenak bere gain hartuko diluen Alkateordea izendatuko du. Grdezkapen hau ez balitz espresuki egingo, Alkatea lehenengo Alkateordeak ordezkatu luke, eta hura ere ez balitz egongo, bertan egongo litzatekeen Alkateorderen batek; ebazpen honetan izendatutako hurrenkeran. Alabaina, horren berri eman beharko zaie udalbatzako gainerako kideei, eta egun berean, jarduneko Alkate gisa, ezin izango dute jardun berorietako bakar batek baino gehiagok.

Laugarrena: Dekretu honen berri emango zaie alkateordeei. Gainera, bertan adieraziko zaie jarduneko Alkate gisa buruturiko ekintzen berri Alkateari jakinarazi beharko dietela eta ezin izango dutela Alkate honek lehendik eginiko eskuordetzak aldatu edo eskuordetza berririk egin.

Bosgarrena: Dekretu hau jakinaraztea Udalaren sail ezberdinetako eta Udalaren menpeko erakundeen arduradunei, udalbatzarrari egingo duen lehendabiziko osoko bilkuran honako dekretu honen berri ematea eta laburpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udalaren web orrian argitaratzea.

Seigarrena: Dekretu hau Alkatetzaren dekretu-liburuan kopia beharko da hitzez hitz, eta behean ageri den dataren hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Jose Miguel Santamaria Ezeiza Alkate jaunak agindu eta sinatzen du, Ordizian, bi mila eta hamabosteko uztailaren hamalauan eta hori guztia nik, Idazkariak, ziurtatzen dut.

Jakinaren gainean geratu da Udalbatzarra.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

5.- Osatutako Talde Politikoaren eta horien bozeramaileen berri ematea.

Segidan Udalean jaso diren udal taldeen osaketarako jakinarazpenak.

Honela, ondorengoak osatu dira:

EAJ/PNV udal taldea.

1. .- Jose Miguel Santamaría Ezeiza
2. .- Jose Ignacio Iturrioz Gotor (bozeramailea).
3. .- Maria Angélica Moreno Heras
4. .- Arantxa Fernandez Alvaredo
5. .- Bittor Bolinaga Alzelai

Ordiziako EH Bildu udal taldea.

1. .- Igor Eguren Izagirre (bozeramailea).
2. .- Belen Maiza Urrestarazu
3. .- Izaro Intsausti Zinkunegi
4. .- Adur Ezenarro Agirre
5. .- Jon Ander Caballero Zubelzu

Ordizia Orain udal taldea.

1. Miren Alazne Sukia Galparsoro (bozeramailea).
2. Antxon Sanz Lekuona

Socialistas Vascos – Euskal Sozialistak udal taldea.

1. Iñaki Dubreuil Txurruka (bozeramailea).

Jakinaren gainean geratu da Udalbatzarra.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

6.-Alkateak dedikazio eskusiboa izateko proposamena.

Proposamena

Entitate Lokalen Antolamendu eta Erregimen Juridiko Erregelamenduko 13.4 artikuluan udal erantzukizunak erabateko dedikazioan ariko diren karguen izendapena arautzen du.

2015eko aurrekontua onartu da, eta bertan Alkatea erabateko dedikazioan aritzea aurreikusten da, dagozkion ordainsari eta guzti.

Hori guztia ikusita, honako proposamen hau egin zaio udalbatzarrari

AKORDIOA

- 1.- JOSE MIGUEL SANTAMARIA EZEIZA, korporazio honetako Alkate izendatua, erabateko dedikazioan aritzeko onartzea, hilero dagozkion soldata gordinarekin, guztira 3.300 euro.
- 2.- Adierazi behar da dedikazio eskusiboa duen Udaleko kide gisa, ez dituela beste kideek jasotzen dituzten ordainsariak jasoko kide anitzeko organoetako bileretara joategatik.

3.- Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorrean afiliatzeko eta alta emateko eskaera egiteko agintzea, eta Udalak beteko ditu Gizarte Segurantzak enpresentzako ezartzen dituen Erregimen Orokorreko arauetako eginkizunak, bere zerbitzupeko langileekiko arauak.

4.- Akordio hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udalaren web orrian eta Udaleko iragarki oholean argitaratzea.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Batzordeburuak esku hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Alkate jn

Aurreko legegalditik datorren proposamen bera da. Soldata berdinarekin.

Eguren jn

Pozten gaitu erabaki honek. EAJk beste Udal batzuetan ez duelako gauza bera egin, hau da, soldata igo du. Alde bozkatuko dugu.

Sukia and.

Gure proposamena zen alkateak delegazio zabalagoak egitea eta horrela agian ez litzateke erabateko dedikazioa behar izango. Abstenituko gara.

Bozketa

Eztabaida mahaian amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du aipatutako aldaketak egin ondoren.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 11 (EAJ/PNV 5, Ordiziako EH Bildu 5, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1).

Aurkakoak: 0.

Abstentzioak: 2 (Ordizia Orain 2).

Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

7.- Udal honetako zinegotzi baten % 100eko dedikazio eskusiboa eta beste baten % 50eko dedikazio partziala.

Proposamena

Udaletako Antolakuntza eta Funtzionamenduaren Araudiko 13.4 artikulua eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen, apirilaren 2ko, 7/1985 Legearen (TAOL) 75 artikulua kontuan hartuta, Udalbatzako kideak kargu politikoan dedikazio eskusiboz jarduteko izendapenari buruzkoa dena.

Kontuan izanik koordinazio eta administrazioaren berrikuntza lanetarako dedikazio eskusiboa behar dela.

Kontuan izanik koordinazio eta administrazioaren berrikuntza lanetarako dedikazio partzial bat ere behar dela.

Kontuhartzailearen 2015/7/15eko txostenean aipatzen diren partidetan kreditu soberakinak daudela kontuan izanik, Alkatetza honek honakoa proposatzen du:

AKORDIOA

1.- Udal honetako zinegotzi baten dedikazio partziala aitortzea, honako zereginetarako:

- Udala, etengabeko hobekuntza-irizpideak dituen administrazio bat izateko bidean jartzea.
- Beste arloetako zinegotziei laguntzea.
- Zinegotzien eta sailen arteko koordinazioa arintzea.
- Alkatetzan sortzen diren beharrei aurre egiten laguntzea.

Hileko 1.125 euroko ordainsari gordina izango du. Dedikazio partzial hau indarrean izango da dagokionak kargua onartu eta hurrengo egunetik aurrera.

2.- Udal honetako zinegotzi baten dedikazio eskusiboa aitortzea, honako zereginetarako:

- Legealdiko plangintzaren garapenaren jarraipena eta kontrola egitea.
- Udala, etengabeko hobekuntza-irizpideak dituen administrazio bat izateko bidean jartzea.
- Beste arloetako zinegotziei laguntzea.
- Zinegotzien eta sailen arteko koordinazioa arintzea.
- Alkatetzan sortzen diren beharrei aurre egiten laguntzea.

Hileko 2.250 euroko ordainsari gordina izango da. Dedikazio eskusibo hau indarrean izango da dagokionak kargua onartu eta hurrengo egunetik aurrera.

3.- Dedikazio eskusiboarekin izendaturiko zinegotziari ohartarazi behar zaio zehaztutako dedikazioan karguari dagozkion lanak lehenetsi beharko dituela, bestelako zeregin txiki batzuei kalterik egin gabe, baina nolana ere, lan txiki hauek ez dute kaltetuko Udalean duen bere lana.

4.- Adierazi behar da dedikazio eskusiboa eta dedikazio partziala duten Udaleko kide gisa, ez dutela beste kideek jasotzen dituzten ordainsariak jasoko kide anitzeko organoetako bileretara joateagatik.

5.- Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorrean afiliatzeko eta alta emateko eskaera egiteko agintzea, eta Udalak beteko ditu Gizarte Segurantzak enpresentzako ezartzen dituen Erregimen Orokorreko arauetako eginkizunak, bere zerbitzupeko langileekiko arauak.

6.- Adierazi behar da kide horiek berariaz onartu behar dutela kargua eta onarpen hori osoko bilkuran jakinarazi beharko dela.

7.- Akordio hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udalaren web orrian eta Udaleko iragarki oholean argitaratzea.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Batzordeburuak esku hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Alkate jn

Liberatuaren soldata, aurreko legealdiko zinegotzi liberatuak izandako bera da. Bestearena, erdia.

Mila: alkatearen dedikazio osoarekin zalantzak izatea pena da; espero dut legealdian zehar iritziz aldatzea. Liberazio eta erdi hauek dira, bereziki, zinegotzien arteko koordinazioan laguntzeko eta partaidetza sustatzeko. Baita plangintzaren jarraipena egiteko, legealdiko plana Udaleko langileekin jorratuko dugu eta.

Eguren jn

Zalantzarik ez dut alkateak dedikazio osoa behar duela. Ez dugu eragotziko proposamena. Gobernuak erabakitzen du nor liberatu, Alkateak alboan norbait behar baitu. Abstenituko gara, organigramarekin kritiko garelako. Bestalde, liberatuen funtzioek ez dute zerikusirik delegatuen eskumenekin.

Alkate jn

Aipaturiko zereginak izango dira delegatuen eskumenez gain egin beharrekoak.

Sukia and

Gure proposamena onartuz gero, ez luke liberaziorik beharko. Liberazioen kontra gaude, egoera ekonomiko honetan. Aurka bozkatuko dugu.

Bozketa

Eztabaida mahaiari amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du aipaturiko aldaketak egin ondoren.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 6 (EAJ/PNV 5, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)
Aurkakoak: 2 (Ordizia Orain)
Abstentzioak: 5 (Ordiziako EH Bildu)

Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du

8.- Udal taldeen eta zinegotzien diru-kopuruak.

Proposamena

TAOLen 75. artikulua dio Udalbatzako kideen ordainketaren eta kalte-ordainen sistema Udalaren Osoko Bilkurak onartuko duela.

AKORDIOA

1. Delegatuak ez diren zinegotzietan 60 euro ordainduko zaizkie, bertaratzen diren bilera bakoitzeko (batzorde informatiboak, tokiko gobernu batzarra, erakunde ezberdinetako kontseiluak).
 - Bilera osoko bilkura bada, 100 euro ordainduko zaizkie.
 - Gehienez 310 euro jaso ahal izango dituzte hilero, bilerak direla eta.
2. Eratutako udal talde bakoitzari, zinegotzi bakoitzeko 140 euroko ordainketa egingo zaio hilabetero.
3. Alkatetzako delegatuei hilean 615 euro ordainduko zaizkie.
4. Aipatu diru-kopuruak, Udaleko langileen soldaten proportzio berean eguneratuko dira.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Batzordeburuak esku hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Alkate jn

Aurreko legealdian bezala kobratuko da (legealdi hasieran gehiago kobratzen bazen ere).

Maiza and.

Asistentzien araberako dietak dira, ez soldata.

Sukia and.

Laugarren puntuak dio kopuruak udal langileen soldaten antzera eguneratu egingo direla. Ez gaude horrekin ados: ez da soldata bat.

Alkate jn

Praktikan ez dira igo, jaitsi baizik.

Eguren jn

KPIren arabera igotzearen aurka gaude, langileen soldatak izoztuta badaude. Hortik langileen soldatarekin lotzea.

Maiza and.

Iñaki, erabaki zenuen zenbait erakunde eta bileretan parte ez hartzea. Ez duzu ezagutza errealik aholku batzordeen funtzionamenduz. Aktetan dago herritarren parte-hartzea jaso. Etorkizunean, informazio gehiagorekin, zuzendu beharko dituzu hemen esandakoak.

Dubreuil jn

Planeamenduko Aholku Batzordeak bi bilera egin zituen soilik. Gizarte Ongizatekoan, berriz, 15 partaidetik 4 edo 5era jaitsi zen. Ez zaie erabakitzeko eskumenik eman. Sustapen lana egin behar da. Herritarrek beraiek erabaki behar dute noiz egin partaidetza prozesu bat.

Maiza and.

Hori ez da aurreko legealdiaren benetako argazkia.

Eguren jn.

Dubreuil jaunak esan du arriskutsua dela batzorde batzuetan herritarrek egotea.

Dubreuil jn.

Esan dudana da arriskutsua dela aztertzen den gaian edo puntuan interes pertsonalak badaude. Bateriaezintasunak arautu behar dira, zinegotziekin egiten den moduan.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 11 (EAJ/PNV 5, Ordiziako EH Bildu 5, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1).

Aurkakoak: 0.

Abstentzioak: 2 (Ordizia Orain).

Beraz, Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



Alkate jaunak Eñaut Gereñu zoriondu du berak zuzendutako GERTUKO S.L. enpresak GOIEKIk antolatutako enpresa ekimen berrien saria jaso duelako.

Aztergai gehiago ez dagoenez, Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, eta honako akta jaso da; hori, nik, Idazkariak egiaztatzen dut.